



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailak 6

Vitoria-Gasteiz, 6 de febrero de 2018

Lehendakaritza

GOBERNUAK BIZIKIDETZAKO ETA GIZA ESKUBIDEETAKO PLANA, IAZ ONETSI ZENETIK, NEURRI HANDIAN BETE DELA EGIAZTATU DU

Gobernu Kontseiluak gaur izan du Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Bizikidetzako eta Giza Eskubideetako Planaren segimenduaren urteko txostenaren berri; bertan, 2017an bertan jaso diren ekimenen kudeaketaren eta betearazpenaren balantzea jaso da, bai eta 2018rako erronka nagusiak ere. Horrela, iazko urrian Plana onetsi zenetik, arduradunen ahalegin nagusia Planean bertan ezarritako lan-egutegiaren arabera aurreikusitako ekimenak abian jartzea izan da.

Zehazki, dokumentuan jaso diren 15 ekimenetatik, 11ren betetze-maila % 100koa izan da, 2017rako egutegiko konpromisoei dagokienez; 3k % 80ko betetze-maila izan dute eta, batek, % 60koa. Nabarmendu behar da % 100ean bete diren ekintza guztiak direla zuzenean Giza Eskubide, Bizikidetzako eta Lankidetzaren Idazkaritzaren ekintzaren mendekoak direnak. Hori horrela, Gobernuarentzat Planaren betetze-mailak balorazio ona merezi du.

2018RAKO ERRONKA NAGUSIAK

2018. urte honetarako, eta kontuan hartuta euskal egoera soziopolitikoak, Planaren jarduera-planak zehaztasunez definitzen ditu egin beharreko jarduketak, honako erronka nagusiei erantzuteko:

- 1. ETAREN alde bakarreko desegite eraginkorra eta behin betikoa gerta dadin laguntzea**, eta terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak ekarri duen kaltearen justiziarik ezari buruzko hausnarketa kritikoaren prozesu partekatua sustatzea.
- 2. Terrorismoaren biktimekin elkarriketaren, lankidetzaren eta akordioaren eremuetan sakontzen jarraitzea**, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren eta AVTrekiko lankidetzako akordioen bidez.
- 3. Memoriaren politika publikoen sustapenean ahalik eta adostasun handiena sustatzen jarraitzea**, GOGORA institutuaren jarduera-programen bidez.
- 4. Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen legezotasuna eta konstituzionaltasuna defendatzea** eta legean aurreikusten den Balorazio Batzordea abian jartzea, etenda ez dagoen guztian aurreikuspenak garatzeko, Espainiako Gobernuak jarritako errekurtsioari buruzko irizpena eman arte Konstituzio Auzitegiak.
- 5. Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta parlamentuko taldeekin akordioak sustatzea, espetxe-politikari beste**

orientazio bat eman ahal izateko, hurbiltzeari eta erantzun humanitarioei dagokienez, bai eta gizarteratzeko politika aktiboak legalki garatu ahal izateko dekretuaren oinarriak adosteko ere.

6. Bizikidetzan agertzen doazen erronkei erantzuteko ekimenak abian jartzea. Besteak beste:

- Errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari erantzuteko esparru-dokumentuaren garapena
- Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 Zuzendaritza Planaren onspena
- Kulturako Zentroen Legearen onspena
- Erlijioen arteko Euskal Kontseiluaren sorrera
- Erlijio-izaerako nazioarteko terrorismoaren aurrean Jarduera Planaren gainerako aurreikuspenak abian jartzea.

7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza eta kultura sustatzeko eremuan jarduketak garatzea.

Hezkuntza-eremuan, bi aurreikuspen:

- Aieteko Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa sortzea.
- Hezkuntza-proiektuak, besteak beste, biktima hezitzaileen Adi adian Modulua unibertsitate-eremura zabaltzea.

Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura sustatzeko eremuan, nabarmendu beharrekoa da Giza Eskubideen 70. urteurrena ospatzeko euskal kanpainaren erakunde arteko sustapena; bertan aipatzekoa da azaroko nazioarteko kongresua.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN 33,5 MILIOI EURO AURREZTU ZITUZTEN 2017. URTEAN, HERRITARREK EGITEN DITUZTEN KUDEAKETETAN DATUAK ONLINE ELKARTRUKATZEAN

- Eusko Jaurlaritzak datu ofizialak administrazio publikoen artean online transmititzeko duen NISAE plataformak, paperezko ziurtagiriak ordeztu dituena, herritarren 6,7 milioi dokumentu elkartrukatu zituen, hau da, duela bost urte baino sei aldiz gehiago
- Administrazioen artean dokumentu gehien elkartrukatu zituen kudeaketa mota Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren izapidetzea izan zen (guztien % 66 baino gehiago)
- Eusko Jaurlaritzak transmititzen dituen datu ofizial guztien benetakotasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzen ditu

2017. urtean, euskal administrazioek **6,7 milioi dokumentu** elkartrukatu zituzten online, hau da, duela 5 urte baino sei aldiz gehiago. Herritarrek arlo horretan elkarrekin diharduten administrazio publikoren batekin egin beharreko izapide eta kudeaketetan egiten diren informazio-elkartrukeak dira. Elkarrekingarritasun horri esker, administrazio publikoekin harremanetan jarri behar duten pertsonak ez dituzte aurkeztu behar beste erakunde batzuen eskutan dauden dokumentu edo ziurtagiriak.

NISAEren bitartez (Euskadiko Administrazioaren Elkarrekingarritasun- eta Segurtasun-Nodo plataforma) elkartrukatzen da informazioa. Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundien lankidetzarekin batera, sortutako plataforma horrek datuak online transmititzen ditu, paperezko ziurtagiriak ordeztuko. Elkarrekingarritasun-nodoak elkartrukatutako informazioaren benetakotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna eta kontserbazioa ziurtatzen ditu.

Hitzartuta dauden administrazio publikoen arteko elkartruke horri esker, herritarrek egin beharreko izapideak sinplifikatu, zerbitzu publikoaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetu, langile publikoen lan-kargak murriztu, gardentasun handiagoarekin eta informazioaren kalitate handiagoarekin lan egin eta kostu publikoak aurrezten dira. 2017. urtean, NISAE plataformaren erabilierari esker, **33,5 milioi euro aurreztu** ziren:

TRANSMISIOAK ETA KOSTUEN AURREZPENA:

BILAKAERA ETA KOPURUA

URTEA	TRANSMISIOAK, GUZTIRA	AURREZPENA
2017	6.701.922	33.509.610 €
2016	3.382.627	16.913.135 €
2015	2.894.123	14.470.615 €
2014	1.206.325	6.031.625 €
2013	1.054.014	5.270.070 €

ERAKUNDE PUBLIKOAK

Gaur egun, ia **250 administrazio publiko ari dira elkarreragiten** herritarren dokumentazio eta informazioarekin. Datu gehien eskatzen eta transmititzen dituztenak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua, hiru foru-aldundiak, hiru euskal hiriburuak eta biztanle gehien duten udalak (hala nola Barakaldo, Irun eta Basauri):

TRANSMISIOEN KOPURUA (Erakunde motaren arabera)

ERAKUNDEA	TRANSMISIOEN KOPURUA
Udalak	45.820
Foru-aldundiak	67.310
Gobernuak (Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua eta Errioxako Gobernua)	6.470.445
Unibertsitateak	837
Beste batzuk	117.510
GUZTIRA	6.701.922

ELKARTRUKEAREN MOTA ETA ARRAZOIA

Gaur egun, administrazio publikoak herritarren **26 dokumentu mota** elkartrukatzeko ari dira **herritarren 343 izapide edo kudeaketa motatan**. Dokumentuen online transmisio gehienak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzeko egiten dira (guztien % 66,5):

TRANSMISIOAK, GUZTIRA (Herritarren kudeaketa motaren arabera)

HERRITARREN KUDEAKETA	TRANSMISIOEN KOPURUA	TRANSMISIOAK (%)
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)	4.460.165	% 66,55
Hizkuntza-eskola ofizialeko proba libreak	557.248	% 8,31
Unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketak batzuk egiteko bekak	521.802	% 7,79
Unibertsitatekoak ez diren ikasleak eskolatzeko laguntzak	138.907	% 2,07
Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO)	118.301	% 1,77
Sinadura elektronikoa aitortuaren ziurtagiria lortzea	112.876	% 1,68
Ikasleen onarpena ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan	86.425	% 1,29
Gizarte-larrialdietarako laguntzak	76.170	% 1,14
Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialean ikasleak onartu eta matrikulatzeko modua arautzen da	72.249	% 1,08
Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak	58.473	% 0,87
Beste batzuk (333 prozedura)	499.306	% 7,45
GUZTIRA	6.701.922	% 100,00

TRANSMISIOAK, GUZTIRA
(Zerbitzu/dokumentuaren eta erakundearen arabera)

ERAKUNDEA	DOKUMENTU MOTA	TRANSMISIOEN KOPURUA	%
Poliziaren Zuzendaritza Nagusia	Identitate Datuak Egiaztatzeko Zerbitzua	1.570.622	23,4%
Katastroaren Zuzendaritza Nagusia	Katastro Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	899.664	13,4%
Barakaldo, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak	Errolda Historikoko Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	830.881	12,4%
Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Irungo udalak	Errolda Indibidualeko Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	741.332	11%
Eusko Jaurlaritza	Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta egotea Kontsultatzeko Zerbitzua	508.134	7,6%
SEPE	Langabezia Egoera Kontsultatzeko Zerbitzua	505.139	7,5%
Foru-aldundiak	Epigrafeak Kontsultatzeko Zerbitzua	463.676	7%
Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian data jakin batean alta Kontsultatzeko Zerbitzua	445.070	6,6%
Foru-aldundiak	Zerga Egoitzaren Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	138.918	2%
Eusko Jaurlaritza	Familia Ugarien Tituluak Kontsultatzeko Zerbitzua	138.088	2%
Eusko Jaurlaritza	Etxebideko Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	120.721	1,8%
Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean izatearen Zerbitzua	97.427	1,5%
GSIN	Gizarte Prestazio Publikoak Kontsultatzeko Zerbitzua	67.846	1,01%
Eusko Jaurlaritza	Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) Kontsultatzeko Zerbitzua	67.458	1%
Foru-aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia	Zerga Betebeharren Ordainketa Egunean Izatearen Zerbitzu Generikoa (foru-aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia)	43.620	0,7%
Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak	Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako Bizileku Erroldako Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	27.327	0,5%
Estatistikako Institutu Nazionala	Bizileku Datuak Egiaztatzeko Zerbitzua	11.016	0,2%
Hezkuntza Ministerioa	Unibertsitate Tituluak Kontsultatzeko Zerbitzua	8.052	0,1%
Hezkuntza Ministerioa	Unibertsitateaz kanpoko Tituluak Kontsultatzeko Zerbitzua	5.454	0,08%
Trafiko Zuzendaritza Nagusia	Ibilgailuaren Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	4.567	0,07%
Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala (Justizia Ministerioa)	Sexu Delituengatiko Aurrekaririk ez izatea Kontsultatzeko Zerbitzua	1.883	0,04%
Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa	Legezko Bizilekuaren Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	1.856	0,04%
Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua (IMERSO)	Mendekotasun Gradua eta Maila Kontsultatzeko Zerbitzua	1.776	0,03%
Trafiko Zuzendaritza Nagusia	Gidariaren Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua	1.368	0,02%
Eusko Jaurlaritza	Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta egotea Kontsultatzeko Zerbitzua	16	0,0002%
Foru-aldundiak	Nomina Ordaintzaileak Kontsultatzeko Zerbitzua	11	0,0001%
GUZTIRA		6.701.922	100%

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

GLOBAL LEHIAN ETA GLOBAL TRAINING, NAZIOARTEKOTZEKO EUSKAL ENPRESA-EGITURA SENDOTZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, gaur, bi laguntza-programa onetsi ditu: Global Lehian eta Global Training. Laguntza horien helburua da, batetik, euskal enpresa-egituraren lehiakortasuna hobetzea eta, bestetik, euskal enpresaren giza baliabideen gaikuntza hobetzea. Bi programek dute nazioartekotzea bultzatzeko xedea.

Global Lehian: 5.520.000 € ete-en Internazionalizazioa bultzatzeko

Eusko Jaurlaritzak ekitaldi honetarako GLOBAL LEHIAN Programarako 5.520.000€ ematea onetsi du gaur, ETE indibidualak eta kooperaziozkoak internazionalizatzen laguntzeko. Era horretan, enpresei laguntzeko behar diren mekanismoak ahalbidetzen dira, Enpresen Internazionalizazio Planean jasotako finantzaketa-iturriak eskainiz.

Euskal ekonomiaren internazionalizazioa areagotzeko behar diren baldintzak sortzea lehentasunezko helburua da gure Gobernuarentzat eta gure enpresentzat. Hala, GLOBAL LEHIAN Programak lagundu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden enpresak kanpoan lehiakorragoak izaten. Programa honek enpresen nazioarteko jardunaren kontsolidazioa eta inplantazioa bultzatzen du, baterako sustapenean, kontsolidazioan eta kanpoko inplantazioan lagunduz.

Laguntza hauek mikroenpresek, eta enpresa txiki eta ertainek (ETE), indibidualak nahiz kooperaziozkoek, jaso ahal izango dituzte, betiere Euskadin ezarrita badaude eta jadanik internazionalizazio plan bat badute.

Laguntza hau eskatzen duten entitateek eta enpresek eskaera normalizatu bat bete behar izango dute formatu elektronikoan, urteko deialdiari dagokion ereduaren arabera.

Global Training Bekak abian jartzeko gaituta dauden

“Global Training” beka deituko dituzten entitate publiko edo pribatuei zuzenduriko laguntzen deialdia onartu du gaur Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, ekonomia irekiaren arloan sortuko diren etorkizuneko erronkei aurre egiteko konponbideak bilatzeko egiten ari den esfortzuaren baitan, euskal gazteen gaitasun- eta ezagutza-garapenari, heziketari eta mugikortasunari loturiko jarduketa ezberdinak gauzatzeko beharra aitortu du, gazte horien laneratzea sustatzeko.

Horrexegatik, "Global Training" gazteentzako beka programa deitzea erabaki du. Unibertsitate tituludun eta goi-mailako lanbide-heziketa duten gazteei zuzenduriko beka hauen xedea da atzerriko enpresa eta erakundetan egingo diren praktikak sustatzea, euskal gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna bultzatuz.

2018 ekitaldirako Global Training Beken deialdiak 4.120.000 euroko dirukopurua dauka eta sei hileko iraupeneko 400 beka finantzatuko ditu gehienez.

Gaur, Global Training bekak deituko dituzten entitate publiko edo pribatuei zuzenduriko laguntzak onartu dira. Eskaera-eredua ondoko webgunean dago eskuragarri: <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus>

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako departamentuak ostegun honetan, otsailak 8, 2017-2020 Enpresen Nazioartekotze Plana aurkeztuko die nazioartekotze eremuko ekosistema osatzen duten eragile guztien aurrean. Euskadi Basque Country estrategiaren barruan kokatzen den Planak, datozen urteotan nazioartekotze politiken ardatzak, Basque Trade & Investment agentziaren sorrera eta Kanpo Sarearen zabalkundea jasotzen ditu.

Enplegua eta Gizarte Politikak

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK HITZARMENA SINATUKO DU ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZUAREKIN, EUSKADIKO LANGABEEK PREPARA PLANEAN SARTZEKO AUKERA IZAN DITZATEN

Artolazabal sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluan, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren artean adostutako hitzarmena azaldu du; horren bidez, langabezia-babesa agortzen duten pertsonen Lanbide Prestakuntza Eguneratzeko Programan aurreikusten diren laguntzak emateko eta ordaintzeko kudeaketa arautzen da.

Akordioaren helburua da salbuespenez eta denboran mugatuta esleitzea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari langabezia-babesa agortzen duten eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean duten pertsonen Lanbide Prestakuntza Eguneratzeko Programan aurreikusten diren laguntzak emateko eta ordaintzeko kudeaketa, hitzarmen hau indarrean sartzen denetik eta 2018ko apirilaren 30era arte.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eginiko kudeaketa urriaren 6ko 14/2017 Errege Lege Dekretuan (langabezia-babesa agortzen zaien pertsonen lanbide-prestakuntza eguneratzeko programa ohiz kanpo eta aldi jakin baterako berraktibatzea onartzen duena) eta programa hori arautzen duen indarreko gainerako araudian ezarritakora egokituko da.

Aurrekariak

PREPARA Lanbide Prestakuntza Eguneratzeko Programarako laguntzak otsailaren 11ko 1/2011 Errege Lege Dekretuak (Enplegu egonkorerrako trantsizioa sustatzeko eta langabeen lanbide-prestakuntza eguneratzeko premiazko neurriei buruzkoa) ezarri zituen. Programa horrek, egoeraren arabera, langabezia-babesa agortzen zaien pertsonen lanbide-prestakuntza programa sartzen du, enplegu-politika aktiboetako ekintzetan eta laguntzarako diru-laguntza jasotzean oinarritzen dena.

Lan-merkatuaren egoera kontuan hartuta, urtarrilaren 25eko 1/2013 Errege Lege Dekretuak programa luzatzen du. Bigarren xedapen gehigarrian programa horren indarraldiaren luzapen automatikoa ezartzen du, elkarren segidako sei hileko aldietan, betiere langabezia-tasa, Estatuan luzapenaren egunaren aurretik argitaratutako Biztanleria Aktiboaren azken Inkestaren arabera, % 20tik gorakoa bada.

Gero, apirilaren 15eko 1/2016 Errege Lege Dekretuak Enplegurako Aktibazio Programa, bigarren xedapen gehigarrian (urtarrilaren 25eko 1/2013 Errege Lege Dekretua aldatu da), luzatu egin du, eta ezartzen du programaren luzapen automatikoa gertatuko dela, elkarren segidako sei hileko aldietan, betiere

langabezia-tasa, Biztanleria Aktiboaren azken Inkestaren arabera, % 18tik gorakoa bada.

Euskadin, ordea, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren eremuan egiten duen lan-legeria betearazteko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea ezartzen du.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak beti uste izan du Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari programa horren laguntza osagarriaren kudeaketa eta finantzaketa esleitzeak urratu egiten duela eskumenen banaketa Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren artean, eta horrek urtarrilaren 25ko 1/2013 Errege Lege Dekretuaren konstituzio-kontrakotasuna oinarritzen duela. Hori dela eta, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jarri zen, Errege Lege Dekretu horren agindu batzuen aurka.

Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 25ko 1/2013 Errege Lege Dekretuaren aurka aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa dela-eta Konstituzio Auzitegiak 2017ko uztailaren 20an eman zuen 100/2017 Epaiak ezartzen du langabezia-babesa agortu duten pertsonen laguntzeko diru-laguntza Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzeak hautsi egiten duela enpleguaren arloan eskumenen banaketaren ordena konstituzionala.

Programaren eskumenen esparrua aztertuta, datu batek egoera oso garrantzitsua eragiten du, eta jarraian zehaztuko da.

2017 ekitaldian, ekonomiak eta enpleguak etengabe gora egin izanaren ondorioz, Estatuko langabezia-tasa % 18tik beherakoa da. Premisa horrekin, Prepara planak pasa den abuztuaren 15ean amaitu zuen indarraldia, eta ezin da automatikoki berritu, aurreko edizioetan bezala.

Testuinguru horretan eta programak aurrera jarraitu duela ziurtatzeko dagoen beharra aintzat hartuta, langabezia-babesa agortu duen kolektiboari kalterik ez eragiteko eta autonomia-erkidegoek laguntza ekonomikoen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko, kontuan izanik laguntza horiek kudeatzeko administrazio eskudunak direla, 2017ko irailaren 18an eginiko Enpleguko eta Lan Gaietako Sektore Konferentzian beharrezkotzat jo zen, ohiz kanpo eta denboran mugatuta, langabezia-babesa agortzen duten pertsonen lanbide-prestakuntza eguneratzeko programa berreskuratzea. Sektore-mahai horretan, salbuespenez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari laguntzarako diru-laguntza emateko eta ordaintzeko funtzioak esleitzea erabaki zen.

Gaur egun, urriaren 6ko 14/2017 Errege Lege Dekretuak, 2017ko abuztuaren 16tik aurrera eta 2018ko apirilaren 30era arte ondorioak izanik, langabezia-babesa agortzen duten pertsonen lanbide-prestakuntza eguneratzeko programa ohiz kanpo berriro aktibatzea onetsi du, enplegu-politika aktiborako eta laguntzarako diru-laguntzako neurriak jasotzen dituen programa nazional berezi gisa.

Langabezia-babesa agortzen duten pertsonen lanbide-prestakuntza eguneratzeko programa 2.400 edo 2.700 euroko laguntza da (familia-kargak egonez gero), langabe bakoitzagatik, eta hilean 400 edo 450 euroko 6 pagetan kobratzen da. Onuradunak iraupen luzeko langabea izan behar du, enplegu-eskatzaile egoeran egon behar du gutxienez azken 18 hileotako 12 hilean edo familia-erantzukizunak izan eta ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.

Horrela, programa honen onuradun izan ahalko dira lan-harremana iraungitzeagatik langabezian dauden pertsonak eta Enplegu Bulegoetan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta daudenak, baldin eta, 2017ko abuztuaren 16tik 2018ko apirilaren 30era, biak barne, kontribuzio-mailako langabeziagatik prestazioa agortu badute edo agortzen badute eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzako Lege Orokorreko testu bateginean ezarritako edozein langabezia-sorospen jasotzeko eskubiderik ez badute, edo sorospen horietakoren bat agortu badute, luzapenak barne; pertsona horiek, eskabidearen unean, gainera, aurretik aipatutako baldintzaren bat bete beharko dute.

Ogasun eta Ekonomia

EUSKADIKO AURREKONTUEN LEGEAN AURREIKUSITAKO 2018RAKO ZORPETZE ERAGIKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN DEKRETU PROIEKTUA

Gobernu Kontseiluak baimena eman du zorpetze-eragiketak egiteko, ekitaldi honetarako 2018. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen Legeak zorpetzeari dagokionez onetsitakoari eta aurreikusitakoari jarraikiz.

2017aren itxierako zorpetze-eragiketak eta 2018an egingo diren amortizazioak kontuan hartuta, ekitaldi honetan formalizatuko den gehieneko zenbatekoa 1.377 milioi euro da.

Ekitaldi honetan formalizatuko den zorpetzeak 2018rako adostutako zor publikoaren helburua betetzen dela bermatu beharko du.

2018AN KREDITU KONTUAK FORMALIZATZEKO BAIMENA EMATEN DUEN AKORDIO PROPOSAMENA

Gobernu Kontseiluak, aurreko urteetan bezala, baimena eman du, Euskadiko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeak aurreikusitakoarekin bat etorritz, kreditu-eragiketak formalizatzeko, kreditu-kontu gisa.

Kreditu-eragiketak urtean zehar formalizatuko dira, eta, aurreko urteetan bezala, guztira 800 milioi eurokoa izango da zenbateko osoa.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU BATZORDEAK KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN 2018-2020RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU, ETA 49 LAGUNTZA-LERRO JASO DITU

- **Kultura Sailburuordetzak eta Etxepare Euskal Institutuak 34 deialdi kudeatuko dituzte**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2018-2020rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa. Agiria kudeaketa-tresna programatikoa da, eta kulturari, euskararen sustapenari eta kirolari laguntzeko politika publikoak planifikatzeko erabiliko du Sailak. Agiriak Sailaren kudeaketa-arlo ezberdinetatik deituko diren diru-laguntzen deialdiak jasotzen ditu. Orotara diru-laguntzen 49 deialdi egingo dira, eta banatuko dira Kultura Sailburuordetzaren (34), Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (10) eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren (5) artean.

Kultura Sailburuordetzarekin lotutako diru-laguntzen 34 deialdiak honela banatuko dira: 17k kulturaren eta kulturako diziplina ezberdinen sustapenarekin dute zerikusia, 10ek kultura-ondarea babestearekin eta 7 Etxepare Euskal Institutuak kudeatuko ditu, euskal kultura atzerrian sustatzearekin lotuta baitaude. Hizkuntza Politikako 10 deialdietako 4 HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Institutuak Kudeatuko ditu, 3 Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak, 2 Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak, eta, azkenik, bat Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak. Hirugarrenik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak zuzenean kudeatuko ditu lau diru-laguntza deialdi, eta Basque Team Fundazioa, berriz, deialdi bat kudeatzeaz arduratuko da.

Kultura Sailburuordetzaren jarduera-esparruaren kasuan, honakoak dira diru-laguntza deialdien helburu estrategikoak:

- Kultura ondarea balioztatzea eta zabaltzea.
- Euskadiko Museo Sistema garatzea.
- Artxiboen Euskal Sistema garatzea.
- Liburutegien Euskal Sistema garatzea.
- Kultura eta Sormen Industriak (KSI) sustatzea
- Euskal sorkuntza sarea indartzea.
- Aukera berdintasuna sustatzea.
- Kultura politikak partekatzea.
- Euskara eta euskal kultura Euskaditik kanpora sustatzea.

Hizkuntza Politikari dagokionez, hauek dira helburuak:

- Euskararen erabilera gizartean.

- Euskara hedabideetan.
- Euskara ingurune digitalean.
- Euskararen erabilera alor sozioekonomikoan.
- Helduen euskalduntzea.

Azkenik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatutako diru-laguntza deialdien helburuak hauek dira:

- Kirol Federazioak finantzatzea.
- Euskadi gizarte aktiboagoa izatea.
- Goi-mailako kirola eta kanpora begirako proiektzioa (Basque Team).

Lana eta Justizia

LAN ETA JUSTIZIA SAILAK 2018KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, onartu egin du Lan eta Justizia Sailaren 2018rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Planaren baitan sartzen dira Lan eta Justizia Saileko organo guztientzako diru-laguntzak, eta diruz laguntzeko jarduera-aurreikuspenaren guztizko zenbatekoa 23.853.727 euro da.

Guztira, diruz laguntzeko 22 lerro aurreikusi dira, eta horien artean nabarmentzekoa da doako babes juridikoa finantzatzera zuzendutako laguntzei dagokiena (15.088.525 euro), behar besteko baliabide ekonomikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzeko. Bestalde, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak aurreikusita dauka laguntzetan 4.524.202 euro ematea laneko kooperatibak eta sozietateak sortu eta garatzeko, gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen elkarte-egiturak sortu eta finkatzeko, eta enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan elkarlanean aritu eta horietan sartzeko, halaber, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren diru-laguntza jardueraren kopurua 2.350.000 eurokoa da.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren asmoa da helburu orokor hauek gauzatzea:

- 1.- Lan eta Justizia Sailari plangintza-tresna bat ematea bere eskumeneko arloekin lotutako herri-onurako edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea helburu izango duten politika publikoetarako.
- 2.- Ikuspegi ekonomiko-finantzariotik, zehaztea diru-laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko bidea emango duten kudeaketa-tresnak.
- 3.- Ahalbidetzea jendaurreko informaziorako sarbidea, gardentasunaren eta gobernu egokirako jardunbideen ikuspegitik.

Lan eta Justizia Sailaren 2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Sail honen webgunean kontsultatu ahal izango da osorik, bihartik, otsailaren 7tik aurrera.

Presidencia

EL GOBIERNO CONSTATA EL ALTO GRADO DE CUMPLIMIENTO DEL PLAN DE CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS DESDE SU APROBACIÓN EL PASADO AÑO

El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el Informe anual de seguimiento del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 del Gobierno Vasco, que recoge el balance de la gestión y ejecución en 2017 de las iniciativas que en él se contemplan, así como los principales retos para 2018.

Así, desde la aprobación del Plan en octubre del pasado año, el esfuerzo principal de sus responsables se ha centrado en la puesta en marcha de las distintas iniciativas previstas en función del calendario de trabajo establecido en el propio Plan.

En concreto, de las 15 iniciativas recogidas en el documento, 11 presentan un grado de cumplimiento del 100% de sus compromisos de calendario para 2017; 3 presentan un cumplimiento del 80% y 1 del 60%. Cabe destacar, que todas las acciones que han sido cumplidas al 100% son aquellas que más directamente dependen de la acción de la Secretaría de Convivencia, Derechos Humanos y Cooperación. En este sentido, para el Gobierno el grado de cumplimiento del Plan merece una buena valoración.

PRINCIPALES RETOS PARA 2018

De cara a este año, 2018, y teniendo en cuenta la coyuntura sociopolítica vasca, el programa de actuación del Plan define con precisión las actuaciones que deben ser abordadas de cara a afrontar los siguientes retos prioritarios:

- 1. Contribuir a la materialización de la disolución unilateral, efectiva y definitiva de ETA,** y promover un proceso compartido de reflexión crítica sobre la injusticia del daño causado por las violaciones de derechos humanos provocadas por el terrorismo y la violencia.
- 2. Continuar profundizando en los ámbitos de diálogo, cooperación y acuerdo con las víctimas del terrorismo,** a través del Consejo Vasco de Participación de Víctimas y del Terrorismo y de los acuerdos de colaboración con la AVT.
- 3. Continuar promoviendo el más amplio consenso posible en el impulso de las políticas públicas de memoria,** a través del programa de actuación del Instituto GOGORA.
- 4. Defender la legalidad y constitucionalidad de la ley 12/2016 de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos** y poner en marcha la Comisión de Valoración contemplada en la ley para desarrollar sus previsiones en todo aquello en que no esté

suspendida, en tanto el Tribunal Constitucional se pronuncia sobre el recurso interpuesto por el Gobierno español.

5. Promover acuerdos con el Gobierno español, el Gobierno francés y los grupos parlamentarios para favorecer una nueva orientación de la política penitenciaria en materia de acercamiento y respuestas humanitarias, así como para consensuar las bases de un Decreto que permita desarrollar legalmente políticas activas de reinserción social.

6. Poner en marcha las iniciativas orientadas a responder a los retos emergentes de la convivencia. Entre otras:

